

JOAN YAKU!

Goibelaren anotsak —edazle asperkor—

benki emon eustan zure eriotz-izpar.

Aizeak: «Joan yaku gizaki bat azkar».

Aratiak: «Itzali da Orixe gotor».

Bat-batez zartatu zan ene biotz-euna,

barrena inarrosiaz naigabe-ziriak;

Malkozko ziran gero enegan begiak,

lapa antzera itsasiz zure oroi leuna.

Inurriak jota lez —ez diñot guzurrik—,

Lengo poza biurtuz oiñaze gorritan.

Argite ta elbarri soiña gera yatan:

Ez nik uste, ainbat, zu maite zindudanik.

Gure maixu zintzazan euskal alorrean,

gure urratsen einetik genbiltzan leialki;

Eusker ona zor dautzu biotzak biziki,

eta dozu ortarako txingarra enean.

Zeru ta lur zagokez buruan ereiño:

langoikoak bemoizu or goian dirdira,

ta gure erria bebil zuk emon argira,

ikera ta oitura munduak dirauño.

Atzo zure il-obia dardaraz egoan,

oro argi ta urre, lillurazko dirdir...

Arri bat be kantari, begi biak niriñir;

aren senaren jabe ein nintzan osoan.

Ni eskale: euskeraren betiko bizia,

tan dedilla beti maite ta landua.

Larunean bait-zagoz doez indartua,

lagon eizu, Orixe, gure ele maitia!